# URRETXU-ZUMARRAGA IKASTOLA
# KODE ETIKOA
# ELKARBIZITZAREN MARKOA

## URRETXU-ZUMARRAGA IKASTOLA
## *CÓDIGO ÉTICO*
## *MARCO DE CONVIVENCIA*

**Urretxu-Zumarraga Ikastola hezkuntza komunitate irekia da eta pentsaera, izaera nahiz inguru eta munduari buruzko ikusmolde ezberdinak dituzten pertsonek osatuta dago.Eta hauen arteko elkarbizitza eta bere garapena elkarrizketan oinarritu nahi ditu.**

**Ikastola, ikasleek ez ezik gurasoek eta langileek ere osatzen dute eta bertan landu nahi ditugun baloreak zaindu eta bultzatzea guztiei dagozkie. Honela definitzen ditu Ikastolak bere misioa, jorratu nahi dituen baloreak, ikusmira eta bere xedea:**

### MISIOA

**Herri ekimenetik sortutako ikastola gara, euskara eta euskal kulturarekin konprometitua eta, aldi beran, beste kulturetara irekiak. Etengabeko hobekuntzaren bidez, partaide guztien elkarlanean oinarrituz eta ikasle guztiak kontuan izanez, pertsona bezala bere osotasunean, prestakuntzarik onena eskaini nahi du.**

*La Ikastola Urretxu-Zumarraga es una comunidad abierta y está formada por personas con diferentes ideologías, personalidades y formas de ver el mundo. La convivencia y el desarrollo adecuado de la misma están basados en el diálogo.*

*La Ikastola está formada por el alumnado, las familias y los trabajadores y es tarea de todos ellos impulsar los valores que queremos conseguir. La Ikastola define su misión, sus valores, su visión y sus propósitos de la siguiente manera:*

### *MISIÓN*

*La Ikastola es un centro escolar, surgido de la iniciativa popular, comprometido con el euskara y la cultura vasca y, al mismo tiempo, abierto a otras culturas, en el que queremos ofrecer la mejor educación basada en la mejora continua, la participación de todos los estamentos y la consideración del alumno como persona.*

### BALOREAK/*VALORES*
### NOLAKO IKASLEA/PERTSONA HEZI NAHI DUGU?
### *¿QUÉ CLASE DE ALUMNO/PERSONA QUEREMOS CONSEGUIR?*

**- Errespetua**
**- Tolerantzia**
**- Adostasuna**
**- Sormena eta Iniziatiba**
**- Ardura eta Autonomia**
**- Nortasun propioa eta Jarrera Kritikoa**
**- Eskalduntasuna eta Kulturekiko errespetua**
**- Hezkidetza**
**- Ingurumenarekiko errespetua**
**–Talde lana**

- *Respeto.*
- *Tolerancia.*
- *Consenso-Acuerdo.*
- *Creatividad e Iniciativa.*
- *Personalidad y Actitud Crítica.*
- *Responsabilidad y Autonomía.*
- *Euskalduntasuna y Respeto a otras culturas.*
- *Coeducación.*
- *Respeto al medio ambiente.*
- *Trabajo en grupo.*

**ADEITSUA:**
*Bestea den bezalakoa onartzen duena, nahiz eta hark pentsatu edo esandakoarekin ados ez egon.*
**KRITIKOA:**
Norberari bizitzea egokitzen zaizkion une on nahiz txarrak, bere irizpideekin baloratzeko gaitasuna garatu eta erabiltzen dakiena.
**EUSKALDUNA:**
Euskara jakin eta erabiltzen duena eta Euskal Herria maite duena.
**BESTE KULTUREKIKO ERRESPETUA:**
Bakoitzaren jarrera kritikotik abiatuz, errealitatea irakurtzeko eta ulertzeko era ezberdinak bereganatu dituena.
**INGURUMENAREKIKO ERRESPETUA:**
Ingurumena aintzat hartu eta berau zaintzen duena, norberaren ongizate eta garapenerako beharrezkoa ez ezik, denon ondarea ere badelako.
**HEZKIDETZA:**
Hezkidetzaren printzipioen arabera hezitako pertsona, sexu bereizkeriak gaindituko dituena, alegia.

*RESPETUOSO:*
*Acepta a los demás tal como son, aunque no esté de acuerdo con lo que piensen o lo que dicen.*
*CRÍTICO:*
*Persona capaz de actuar y valorar con su propio criterio los momentos buenos y malos que le toca vivir.*
*EUSKALDUN:*
*Persona que sabe y utiliza el euskara y que ama a Euskal Herria.*
*RESPETO A OTRAS CULTURAS:*
*Persona que, partiendo de su propia actitud crítica, ha aprendido a identificar y entender las diferentes formas de ver la realidad.*
*RESPETUOSO CON EL MEDIO AMBIENTE:*
*Persona que se preocupa y cuida el medio ambiente, no sólo porque es necesario para nuestro bienestar y desarrollo, sino también porque es patrimonio de todos.*
*COEDUCACIÓN:*
*Persona que rechaza cualquier tipo de discriminación por razón de sexo.*

## IKUSMIRA/*VISIÓN*

**Urretxu-Zumarraga ikastola Hezkuntza Komunitate dialogikoa eta gorengo kalitatezko ikastetxea izatea nahi dugu, berrikuntzen bila dihardauena. Herrian txertatua eta familia guztientzat irekia. Bertako giza baliabideen prestakuntza eta asetze mailaz baliatuz, familien eta, batez ere, ikasleen beharrei erantzuteko gaitsuna duena.**

*La Ikastola Urretxu-Zumarraga es una comunidad educativa dialógica, que quiere ser un centro de calidad y, que trabaja por la innovación, enraizada en su entorno y abierta a todas las familias. Además, es un centro con capacidad para responder a las necesidades de las familias y, sobre todo, del alumnado, basándose en la formación y en la satisfacción de sus propios recursos humanos.*

**XEDEA /** *Propósito*
**Inguruko gizarteak horrela ikus gaitzan nahi dugu:**
*Queremos que la sociedad nos vea de la siguiente manera:*

**<u>Hezkuntza komunitate dialogikoa bezala, hau da:</u>**
**- <u>Hezkuntza Komunitatea:</u> ikaslez, gurasoz eta langilez elkarlanerako osatutako erakundea.**
**- <u>Dialogikoa</u>: honako printzipioetan oinarritutakoa:**
- **Ikastolan gauzatzen diren erlazio guztien oinarrian elkarrizketa dago.**
- **Ikastolan dauden ahots guztiak entzun eta aintzakotzat hartzen dira.**
- **Ikastolako barne harremanak berdintasunean garatzen dira.**
- **Garapenaren zutabe gisa errealitatearen irakurketa kritikoa dago.**

**- Norbanakoaren egoerak eta garapenak kezkatzen duten giza erakunde bezala.**
**- Ingurua geroz eta demokratikoagoa, justuagoa eta gizatiarragoa izan dadin saiatzen den hezkuntza komunitate bezala.**
**- Euskara sustatzeko antolatzen diren ekintzetan partaide zuzen eta bermatzaile bezala.**

*<u>Como una comunidad educativa dialógica. es decir:</u>*
*- <u>Comunidad educativa</u> integrada por el alumnado, las familias y los trabajadores que colaboran entre sí.*
*- <u>Dialógica,</u> basada en los siguientes principios:*
- *El diálogo como base de las relaciones que se establecen en la Ikastola.*
- *Todas las opiniones se escuchan y se toman en consideración.*
- *Las relaciones internas se desarrollan en un plano de igualdad.*
- *La lectura crítica de la realidad es el pilar fundamental del desarrollo.*

*- Como una comunidad educativa preocupada por la situación y el desarrollo de la persona.*
*- Como una comunidad educativa que se esfuerza para que nuestro entorno sea humano, justo y democrático.*
*- Como una comunidad partícipe y garante de las actividades que se organizan para impulsar el euskara.*

**Arestian agertutako hastapenetan oinarrituz, Urretxu-Zumarraga Ikastola elkarbizitza zuzenduko duten honako jokamoldeak bultzatuko ditu: IKASTOLAK PERTSONARENGANAKO KOHERENTZIA BULTZATU ETA BESTEEKIKO ADEITASUNA BALORATZEN DU.**

*Partiendo de los principios anteriores y en el marco de la convivencia, la Ikastola Urretxu-Zumarraga fomentará las siguientes actitudes:*
*LA IKASTOLA IMPULSA LA COHERENCIA PERSONAL Y VALORA EL RESPETO A LOS DEMÁS*

**Horregatik:**

**- Ikastolako partaide bakoitzari hartutako konpromisoak betetzea eskatuko zaio. Emandako hitza betetzen saiatuko da Ikastolakidea.**
**– Ikastolan koherentzia eskatzen dugunean, zera esan nahi dugu, heziketa ez dela hitzekin garatzen ereduarekin baizik. Honetan oinarrituz kide bakoitzari arauak betetzen, besteak aintzakotzat hartzen, besteekin kolaboratzen eta abarretan eredua izatea eskatuko zaio.**
**– Ikastolak koherentzia hau partaide bakoitzaren bizitzaren arlo guztietan jorratzea eskatuko du.**
**– Ikastola hezkuntza komunitatea da eta estamentu bakoitzak bere zeregina du. Egiteko hauek osagarriak dira eta heziketarako ezinbestekoak. Beraz, nork bere gain hartu beharko ditu.**
**– Ikastolan badaude ordezkaritza mota ezberdinak (guraso, langile edo ikasle ordezkari). Ikastolakidea prest egongo da egokitzen zaion ordezkaritza betetzeko. Horretarako konpromiso tinkoa eskatuko zaio. Ordezkatuek laguntza eta erraztasunak eskainiko dizkiote lan horretan.**
**– Partaide bakoitzak Ikastolarekin hartzen duen konpromisoa modu ezberdinetan adierazten da:**

- **Klaseetara joanez.**
- **Asanblada eta bileretan parte hartuz.**
- **Antolatzen diren ekimenetan partaide izanik.**

**– Ikastolak puntualtasuna eskatuko du, berauk besteekiko begirunea adierazten baitu.**

*Por eso:*

*– los miembros de la comunidad de la Ikastola tendrán en cuenta sus compromisos y su cumplimiento.*
*– La coherencia conlleva la necesidad de ser referentes en proceso educativo. Basándonos en esto, se le pedirá a cada miembro que cumpla las normas, que tome en consideración a los demás, que colabore con los otros,....*
*– Esta coherencia debiera estar presente en todos los ámbitos de la vida (La Ikastola pide esta coherencia a sus miembros en todos los ámbitos de la vida).*
*– La Ikastola es una comunidad educativa y cada estamento tiene su cometido, y todos son complementarios e imprescindibles. Por lo tanto, cada uno debe asumir los suyos.*
*– Los miembros de la Ikastola están dispuestos a representar a las familias, trabajadores o alumnado, de forma comprometida para lo cual contarán con el apoyo de los propios representados.*
*– El compromiso que cada miembro de la Ikastola asume se podrá manifestar de diferentes formas:*

- *Asistiendo a clase.*
- *Participando en las asambleas y reuniones.*
- *Participando en las diferentes iniciativas organizadas.*

*– La Ikastola pide puntualidad, ésta será una manifestación de respeto hacia los demás.*

**Ikastolak pertsona euskaldunak, hau da, euskaraz jakin eta egin eta Euskal Herria maite dutenak, garatu nahi ditu**.

*La Ikastola quiere formar personas euskaldunes, es decir, que sepan y hablen euskara y que amen a Euskal Herria.*

**Horregatik:**

**– Ikastolan ikasketak euskaraz egiten dira. Halaber, gazteleraren ezagutza eta ematen diren atzerritar hizkuntzen ezagutza nahikoa bermatuko dira.**

**– Ikastolan gure harremanetarako hizkuntza euskara izango da. Euskaraz bizi nahi dugu.**

**– Ikastolan langile eta ikasleen arteko harremanak beti euskaraz izaten saiatuko gara, baina hasieran ikaslearen ama hizkuntza aintzakotzat hartuko da.**

**– Ikastolan langile eta familien arteko harremanak beti euskaraz izaten saiatuko gara, baina, egoerak horrela eskatuta, elebidunak izan daitezke.**

**– Ikastolak gurasoen formazioa bultzatuko du familietan euskara erabil dadin eta antolatzen diren ikastaroetan partaide izaten animatuko ditu.**

**– Ikastolakideari, Ikastolaren izenean jardutean, euskara erabiltzea eskatuko zaio.**

**– Ikastolak euskara suspertzeko, indartzeko, zabaltzeko edo sustatzeko antolatzen diren ekimenetan partaide eta bermatzaile izan behar du. Horretarako beharrezko hitzarmenak edota laguntzak sinatu eta eskainiko ditu.**

**– Ikastolakideak bere euskal nortasuna aurki dezan, Ikastolak Euskal Herriaren historia, kultura, geografia... ezagut ditzan hartzen du ardura.**

**– Ikastolak euskal kultura ezagutarazi nahi du. ikasturtean zehar ospakizun ezberdinen berri emango du eta komunitate osoaren parte hartze zuzena bultzatuko du.**

**– Inguruko erakunde ofizialetatik edo bestelako talde ekimenetatik sortutako euskara eta euskal kulturaren inguruan antolatzen diren ekintzetan partaide izango da Ikastola.**

**– Ikastolan, aniztasunaren baitan, kultura ezberdinetako kideak, euskalduntzen eta euskal kulturan integratzen saiatuko gara, beren kultur izaera errespetatuz eta oinarritzat hartuz**

*Por eso:*

*– En la Ikastola los estudios se realizan en euskara. También se garantiza el conocimiento del castellano y un nivel suficiente de las lenguas extranjeras.*

*– La lengua que utilizamos en la Ikastola es el euskara. Queremos vivir en euskara.*

*– En la Ikastola intentamos que las relaciones entre trabajadores y alumnado sean en euskara, pero al principio se tendrá en cuenta cuál es su lengua materna.*

*– La Ikastola impulsa la formación de los padres para que en las familias se utilice el euskara y los anima a que participen en los cursillos que se organizan.*

*– Se pedirá al miembro de la Ikastola que, cuando represente a la misma, utilice el euskara.*

*– La Ikastola tiene que ser garante y partícipe en las iniciativas que se organicen para impulsar, reforzar o extender el uso del euskara. Para eso firmará los convenios necesarios con los organismos correspondientes.*

*– La Ikastola se responsabilizará de que el alumnado conozca la historia, cultura, geografía,... de Euskal Herria, para que se identifique con la cultura euskaldun.*

*– La Ikastola quiere dar a conocer la cultura vasca, para lo cual informará sobre las diferentes actividades relacionadas con ella y animará a la comunidad escolar a participar.*

*– La Ikastola participará en las actividades relacionadas con el euskara y la cultura euskaldun, ya sean promovidas por los organismos públicos o por otros grupos.*

*– Respetando la diversidad de culturas, en la Ikastola intentamos euskaldunizar e integrar en la nuestra a las personas procedentes de otros lugares.*

**Ikastolak ez du jaiotza-leku, arraza, hizkuntza, sexua, ekonomi-maila, politika, moral zein erlijio usteak direla medio edo urritasun fisiko nahiz psikiko dela-eta, inongo pertsona bereizketarik onartuko.**

*La Ikastola no acepta ninguna discriminación por razón de lugar de nacimiento, raza, lengua, sexo, nivel económico, creencias morales o religiosas o minusvalía psíquica o física.*

**Horregatik:**

**– Ikastolan pertsona guztiak, gizabanakoaren ezaugarriak errespetatuz, berdin tratatuko ditugu. Ez dugu kideen arteko tratuan bereizketarik onartzen.**

**– Gizabanakoaren singulartasunak eta, beraz, aniztasunak kontsentsuak bilatzera bultzatuko gaitu.**

**– Erabakiak arrazoibideetan oinarrituz hartuko dira. Hau dela-eta, Ikastolan jarrera egoskorrak alboratuko ditugu, elkarrizketa eta kontsentsuen aurkakoak direlako.**

**– Elkarrizketa gune eta eremu guztietan sustatuko dugu. Hala nola Ikastola barruan (familiak-tutore, zuzendaritza-familiak, zuzendaritza-langileak, langileak-ikasleak, zuzendaritza-ikasleak, langile-langile, ikasle-ikasle, guraso-ikasle) Ikastolatik at (Ikastola-erakunde ofizialak, ikastola-alderdi politikoak, ikastola-erakunde pribatuak, ikastola-beste ikastetxeak), familien baitan (guraso-seme-alabak, bikotean) eta, oro har, gizartearen beste eremuetan.**

**– Gure komunitatearen oinarrian hezkidetza egongo da. Ikastolaren jardueran ez da sexu bereizkeriarik onartuko eta, sexuen arteko berdintasuna sustatuko da, guztiengan baloreen heziketa bera jorratuz**

**– Tutorea eta familien arteko harremanetako ardatz nagusia ikaslearen ezagutza izango da. Errezeloa elikatzen duten jarrerak ekidin egingo ditugu. Modu batera edo bestera guztiok gara heziketa prozesuaren partaide, inor gutxietsi gabe. Erlazio horiek elkarren arteko konfiantzan oinarritzen dira eta ez susmo txarretan.**

**– Ikastolan norberararen nortasuna eta ahalmenak garatuko ditugu; bakoitzarena baloratu eta besteenak errespetuz bereganatuko dira**

*Por eso:*

*– En la Ikastola tratamos igual a todas las personas, respetando las características de cada una sin discriminación en el trato.*

*– La singularidad de cada uno y, por tanto, la diversidad nos lleva a buscar siempre el consenso. La herramienta de trabajo en nuestras relaciones es el diálogo.*

*– El diálogo es escuchar al otro y respetar las diferentes interpretaciones de la realidad. Las decisiones se toman de forma razonada. Por lo tanto, en la Ikastola rechazamos las actitudes intransigentes porque son contrarias al diálogo y al consenso.*

*– Impulsamos el diálogo en todos los ámbitos: en la ikastola, en la familia y en la sociedad. (familia-tutor, dirección-familia, dirección-trabajador, trabajador-trabajador, alumno-alumno, padres-alumnos, profesor-alumnado), (Ikastola-organismos oficiales, Ikastola-partidos políticos, Ikastola-entidades privadas, Ikastola-otros centros educativos), en las familias (padres-hijos, en la pareja) y, en general, en el resto de los ámbitos sociales.*

*– La coeducación está en la base de nuestra comunidad. La Ikastola no acepta la discriminación, impulsa la igualdad entre sexos y trabaja con todos la misma educación en valores.*

*– El eje fundamental de las relaciones entre el tutor y la familia es el conocimiento del alumno. Estas relaciones se basarán en la confianza mutua y no en el recelo.*

*– En la Ikastola desarrollamos la personalidad y capacidades de cada uno. Valoramos las propias y respetamos las del resto.*

*– En la Ikastola, para desarrollar las características de cada uno, rechazamos los prejuicios y nos pedimos mutuamente lealtad, ayuda y colaboración. Debido a la diversidad de capacidades, se potenciarán actividades adecuadas al proceso de desarrollo del alumnado (currículos, medios,...)*

**– Ikastolan gizabanakoaren ezaugarriak garatzeko, aurreiritziak baztertuko ditugu eta zintzotasun osoa, laguntza eta lankidetza eskatuko dizkiogu elkarri. Gaitasun aniztasuna dela bide, Ikastolakideen garapen prozesuari egokitutako jarduerak bultzatuko dira (curriculumak, bitartekoak...).**

**– Ikastolak ikastetxeen arteko lehiak baztertu eta bakoitzaren nortasuna nahiz ezaugarriak garatzeko eskubidea aldarrikatuko du.**

**– Kirol ekintzetan Ikastolako kideak kirol aurkariak edota bestelako partaideak (entrenatzaile, epailea, ikuslea...) aintzakotzat hartuko ditu eta besteekiko errespetuz ospatuko du garaipena eta onartuko porrota.**

**– Ikastolaz kanpo burutzen diren ekintzetan Ikastolakideak aurki ditzakeen pertsona, egoera eta antolaketak errespetatuko ditu eta ulertzen saiatuko da.**

**– Besteekiko indar fisiko handiagoan edo nagusitasun konplexuan oinarritutako gutxiespen jarrerak eta harremanak galaraziko ditugu. Ikastolak gizabanakoaren singulartasuna eta, aldi berean, denon arteko berdintasuna bultzatuko ditu.**

*– La Ikastola evitará la competencia entre centros educativos para lo cual reivindica el derecho a las características peculiares de cada uno.*

*– En las actividades deportivas los miembros de la Ikastola tomarán en consideración a los contrarios y al resto de los participantes (entrenador, árbitro, espectador,...) y celebrarán la victoria o asumirán la derrota con respeto hacia los demás.*

*– En las actividades que se realizan fuera de la Ikastola, los miembros de la misma respetarán las situaciones, a las personas y a las organizaciones encargadas.*

*– La Ikastola potencia la singularidad de cada uno y, la igualdad entre todos y, por lo tanto, evitará las relaciones y actitudes de menosprecio a los demás, basadas en una mayor fuerza física o en un sentimiento de superioridad.*

**Ikastolak ez du zentzurik, bere partaideak bere antolaketa edota garapenaren protagonista ez badira**

*La Ikastola no tiene sentido si sus integrantes no son los protagonistas de su organización o de su desarrollo.*

**Horregatik:**

**– Ikastolakideak dira heziketaren eragileak eta norbanakoaren garapena guztion eta bakoitzaren ardura da.**

**– Partizipazioaren bideak guztiontzat irekita egongo dira eta horretarako estamentu bakoitzak gure egiturak eskaintzen dituen bideak erabiliko ditu.**

**– Ikastolaren agintaritzako maila gorena Batzar Orokorra da. Bertan guraso edota tutore legalen, langileen eta ikasleen batzordeko ikasleak dira partaideak. Batzarrak Ikastolaren garapenerako norabide nagusiak erabakiko ditu.**

**– Eguneroko jarduera zuzentzeko Batzar Orokorrak Gida Batzordearen esku uzten ditu bere ardurak. Honetan ere estamentu guztiak (familiak, langileak eta ikasleak) daude ordezkatuta, bai eta Udalak ere, ordezkari bana dutelarik.**

**– Familien parte hartzea geletako ordezkarien bitartez bideratuko da, ekarpenak Gida Batzordera helarazteko ardura beraiena izango delarik.**

**– Langileen parte hartzea bideratzeko, Klaustroa eta Langile Batzarra daude, baita Gida Batzordeko ordezkariak ere.**

**– Ikasleek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik aurrera gela bakoitzean ordezkaria eta ordezkari ordea aukeratuko dituzte eta hauek Ikasle Batzordean bilduko dira.**

*Por eso:*

*– Los miembros de la Ikastola son los inductores de la educación y el desarrollo individual es responsabilidad de todos y cada uno.*

*– Las vías de participación están abiertas a todos y, para ello, cada estamento utilizará las posibilidades que ofrece nuestra estructura.*

*– El órgano máximo de poder de la Ikastola es la Asamblea General. Los integrantes de la misma son las familias o tutores legales, los trabajadores y los representantes del alumnado. La Asamblea decide las líneas generales de funcionamiento.*

*– Para dirigir la actividad diaria, la Asamblea General delega sus funciones en la Junta Directiva, en la cual están representados todos los estamentos (familias, trabajadores y alumnado) así como los Ayuntamientos, que tienen un representante cada uno.*

*– La participación de las familias se canaliza a través de los representantes elegidos en cada clase. A ellos corresponde hacer llegar a la Junta Directiva las aportaciones de sus representados.*

*– La participación de los trabajadores se realiza a través del Claustro y la Asamblea de Trabajadores como de los representantes de la Junta Directiva.*

*– Los alumnos, a partir de 1º de Educación Secundaria Obligatoria, eligen por clase un delegado y un subdelegado y éstos se reúnen en la Asamblea de Alumnos.*

**Ikastolak bere kideak gizarteko partaide eta eragile zuzenak izan daitezen nahi du eta jarrera kritikoa bultzatuko du.**

*La Ikastola quiere que sus miembros sean integrantes activos de la sociedad e impulsa la actitud crítica.*

***Horregatik:***

**– Ikastolak informaziorako, gogoetarako eta eztabaidarako guneak eta bitartekoak eskainiko ditu.**

**– Ikastolak gizartearen arazoen aurrean kide guztiak informatuta egon eta eztabaidatzeko gai izan daitezen ahaleginak egingo ditu. Horrela, modu zabalenean eta ikuspuntu hezitzailetik, informazioaren ikuspegi ezberdinak agertzen saiatuko da, betiere norbanakoaren ikuspegi sozial, etiko eta politikoa errespetatzen direlarik.**

**– Gizarteko zenbait egoeraren aurrean atxikimendua edota desadostasuna adierazteko, Ikastolako langileriak eta azken lau ikasmailen ikasleek greba eskubidea izango dute.**

**– Horrelako deialdien aurrean, Ikastolak erabaki pertsonala bermatu ez ezik, berau kontzientea eta arduratsua izan dadin bultzatu ere egingo du eta horregatik ondoren balorazioak eskatuko ditu.**

*Por eso:*

*– La Ikastola ofrece espacios y medios para la información, la reflexión y la discusión.*

*– La Ikastola hace lo posible para que todos sus miembros estén informados y tengan capacidad de debatir sobre los problemas de la sociedad. Así, de un modo general y desde el punto de vista educativo, intenta mostrar las diferentes interpretaciones de la información, respetando siempre la perspectiva social, ética y política de cada uno.*

*– Los trabajadores y el alumnado de los últimos cuatro cursos tienen derecho a la huelga, para mostrar su adhesión o desacuerdo ante determinadas situaciones.*

*– Ante las convocatorias de huelga, la Ikastola no sólo garantiza la decisión personal, sino que también propicia que ésta sea consciente y responsable y, por esta razón, pide luego una valoración.*

**Ikastolaren antolaketaren ardatza gizakia da**

*El eje de la organización de la Ikastola es la persona.*

**Horregatik:**

**– Ikastolaren jardueran familiak, langileak eta ikasleak aritzen dira. Eginkizunak desberdinak dira baina norbanakoaren lana ezinbestekoa da Ikastola osatzeko.**

**– Ikastolaren kide bihurtzen den pertsona orori harrera egingo zaio, nor garen, guk espero duguna eta berak espero duena konpartitzeko, hain zuzen ere.**

**– Sartuberriarekin begirunea izango da eta hasieran hainbat ardura berezi ez ematen saiatuko gara.**

**– Ikastolan lan banaketa elkartasun jarreran oinarrituko da. Guztion partaidetza eskatuko da eta ardurei uko ez egiten saiatuko da Ikastolakidea.**

**– Norbanakoaren egoerak aintzat hartuko dira eta antolaketari dagozkion erabakiak elkarrizketan oinarri nahi ditu.**

**– Ikasleak taldekatzerakoan hasiera batean ama hizkuntza erabiliko da irizpide nagusi bezala, ondoren taldeen arteko oreka bilatuko delarik.**

**– Talde aldaketa eskatzen denean, talde interesak eta pertsonalak, inplikatutako guztien arteko elkarrizketaren bidez uztartuko dira. Egoera hauetan zutabe nagusiak konstantzia eta elkar lana izango dira, tutore, orientatzaile, familia eta ikaslearen artekoa, alegia.**

*Por eso:*

*– El alumnado, las familias y los trabajadores intervienen en la actividad de la Ikastola. Aunque sus quehaceres son diferentes, todos son imprescindibles.*

*– La Ikastola incorpora a sus nuevos miembros mediante un recibimiento en el que se le expone el significado que tiene la Ikastola y la perspectiva sobre ellos y, además se tiene en cuenta sus objetivos.*

*– Se tiene un respeto especial con las personas recién llegadas y, al principio, se evitará cargarles de ciertas responsabilidades*

*– El reparto de tareas se basa en la solidaridad y, por lo tanto, se pide colaboración y la asunción de responsabilidades.*

*- Las decisiones sobre la organización están basadas en el diálogo y, además, se tienen en cuenta las situaciones personales.*

*– El criterio principal para la formación de los grupos de alumnos es la lengua materna aunque, también, se tendrán en cuenta el equilibrio entre los mismos.*

*– Cuando se pide un cambio de grupo, se intenta dialogar entre todos los implicados y aunar los intereses personales y del grupo. En estas situaciones los instrumentos esenciales de toma de decisiones son la constancia y el trabajo en común entre el tutor, el orientador, las familias y el alumno.*